

Luar eta ur-jauzi magikoa

Duela 1.000.000 urte bizi izan ziren pertsonak, Neandertalak zuten izena. Luar neska Neandertal bat zen, 11 urte zituen, ile marroia zuen, azkarra zen eta oso ongi ehizatzen zuen. Bere amak Ilargi zuen izena, ile marroia zuen eta oso ongi zekien zer fruitu ziren onak eta zeintzuk pozoitsuak. Luarren aitak Mikel zuen izena eta oso ona zen lekuak eta mendiak desberdintzen. Luarren aitona 69 urte zituen, taldeko buruzagia zen eta denek asko maite zuten. Beraiekin batera kobazuloan ume gehiago eta familia gehiago bizi ziren.

Goiz argitsu batean, egun guztiak bezala, Luar bere lagunarekin esnatu zen. Luarrek negarrak eta ahots tristeak entzun zituen kobazuloaren sarreran eta altxatu egin zen begiratzeko. Jende guztia elkartuta zegoen eta erdian bere gurasoak zeuden makurtuta eta negarrez. Luar korrika joan zen jendearen ondora eta bere aitona lurrean etzanda ikusi zuen: hilda zegoen. Bera ere negarrez hasi zen eta bere gurasoak besarkatu zituen. Egun horretan lotara joan baino lehen, bere aita kobazuloaren kanpoko aldean belarretan eserita ikusi zuen eta bere ondora joan zen. Luarrek hau galdetu zion:

—Aita, non lurperatuko dugu aitona?

—Hori pentsatzen ari nintzen Luar— esan zion aitak. Bat-batean ideia bat izango balu bezala begiratu zion Luarri— Behin leku batera eraman ninduen—hasi zen esaten—. Leku hori asko gustatzen zitzaiola esan zidan eta nik berdina pentsatu nuen: leku hura oso polita zen, animalia asko zeuden, ur-jauzi handi-handi bat, eta aitona leku hori magikoa zela esan zidan. Baina zoritxarrez ez dut bere magia gogoratzen. Badakidan gauza bakarra, hor bukaeran dauden mendi horien ondoan dagoela da. Leku hartan lurperatzea gustatuko litzaidake.

—Ni zurekin joango naiz!— esan zuen Luarrek gogotsu.

—Ez— esan zuen aitak serio— oso arriskutsua da.

—Mesedez aita, oso ausarta naiz! Ehizatzen dakit eta ama ere joaten bada fruitu onak zeintzuk diren jakingo dugu!

—Bueno, ados!— esan zion aitak pozik baina kezkatuta aldi berean.

Hurrengo goizean, Luar esnatu eta oihal txiki bat hartu zuen eta han fruitu batzuk eta haragi pixka bat bildu zituen, bidaian zehar jateko. Ordu bat beranduago bere gurasoak eta bera, familiak eta lagunak agurtzen ari ziren. Aitak, aitona bizkarrean eramaten zuen eta amak oihal txikia eramaten zuen. Hasierako ordu erdia oso lasaia izan zen, ez zuen ez hotzik ez berorik egiten. Baina pixka bat beranduago:

—Luar, Ilargi! Azkar, korrika egin!—esan zuen aitak.

Luarrek atzera begiratu zuen eta bi lehoi handi ikusi zituen korrika beraiengana joaten. Luar korrika hasi zen bere gurasoei jarraitzen eta arroka handi baten atzera egin zuten salto. Atzera begiratu eta lehoi askoz gehiago ikusi zituen, bere familia goseti begiratzen. Luar korrika hasi zen bere gurasoak bezala, eta bapatean ideia bat bururatu zitzaion: bere arku hartu, gezia ongi jarri eta zeruan hegan zegoen arrano bati bota zion. Arranoa hila erori zen lurrera eta Luarrek zuen planak funtzionatu zuen: lehoiak despistatu ziren eta arranoa jaten hasi ziren. Gurasoak eta bera azkar alde egin zuten eta zuhaitz batera igo ziren bazkaltzeko. Luarrek oihal txikia zabaldu zuen jateko eta bat-batean desagertu egin zen. Tximino bat ikusi zuten ihes egiten oihalarekin. Luar zuhaitzetik tximinoa segitzeko altxatu zenean amak Luar eskutik hartu eta gelditu zuen.

—Lasai, zuhaitz honetan fruta asko dago— esan zuen amak sagar batzuk hartzen.

Eta familiak berdina egin zuen. Sagarrak jaten hasi ziren eta orduan Luar oihuka hasi zen. Min handia nabaritzen zuen bere gorputzean zabaltzen eta ama konturatu zen sagar pozoitxu bat jan zuela. Azkar, zuhaitzetik jeitsi eta beste zuhaitz baten bila hasi zen. Orduan nahi zuena lortu zuen: Luarri fruta gorri txiki-txiki batzuk sartu zizkion ahoan eta irensteko esan zion. Minutu batzuk beranduago Luar hobeto zegoen

berriz, eta bidea jarraitzen hasi ziren. Ordu bat beranduago beraiek nahi zuten lekura iritsi ziren: ur-jauzi handietara iritsi ziren. Leku hori zoragarria zen: ur-jauzi handi eta polit bat zegoen, parean laku bat, lakuaren ezkerrean zuhaitz altu batzuk, oreinak zeuden zuhaitzen itzalean belarra jaten eta txoriak hegan leku guztietatik.

—Eta non lurperatuko dugu?—galdetu zuen Luarrek, minutu batzuk lekua begiratzen egon ondoren.

Aitak ur-jauzia seinalatu zuen Hatzarekin. Luarrek eta gurasoak lakura sartu ziren eta ur-jauziaren beste aldera joan ziren, ondoren aitona uretan utzi zuten etzanda. Kolore askotako loreak jarri zizkioten, eta hamar minutu bere ondoan eserita egon ondoren gauzak hartu eta kobazulorako bidaia egiten hasi ziren berriro, urjauziaren azpitik sartu eta lakutik irten ziren. Lakua eta urjauzia atzean utzi eta belarretan ixil-ixilik ibili eta denbora bat beranduago norbait beraien izenak esaten entzun zuten, atzera begiratu eta Luarrek ezin zuen sinetsi ikusten ari zena: aitona lakuan sartuta zegoen besoak irekita bere familia besarkatzeko. Luar eta bere gurasoek korrika egin zuten, lakura sartu eta aitona besarkatu zuten. Besarkatu ondoren aitonak hau esan zuen:

— Leku oso politean lurperatzea pentsatu duzue, baina ez zenekiten ur-jauzi honen magia ezta?

— Ez, zein da aitona?— esan zuen Luarrek.

— Hildako norbait ur honetan uzten baduzu, denbora baten ondoren berpiztu egiten da — esan zuen aitonak lasai, ur-jauziari begira. Eta ondoren bere semeari hitz egin zion—. Gogoratu duzu Mikel nire lekurik gogokoena, ezta?

—Bai— esan zuen aitak, eta familiak pozik hasi zuen berriz kobazulorako bidaia.

USUN
LH-3. ZIKLOA
EUSKARA